



# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

|                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|--------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>GIZA BALIABIDEAK</i>        | Zaborontzia diseinatzeko, prototipatzeko eta aurkezteko giza-lana beharko dugu. Diseinu lanak aurrera eramateko eta prototipatzeko, bi produktu-diseinatzailerekin nahikoa da. Aurkezpen lanak guk egingo ditugu, proiektuaren etapa guztien atzean egon garelako.                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <i>BALIABIDE FINANTZIEROAK</i> | Hasierako finantziaketa lortzea nahaitaezkoa da proiektua aurrera eramateko. Materiala erosteak kostu bat dauka, eta giza-lana ordaintzeko aldez aurretiko diru bat eduki beharko genuke. Logistika-funtzioak ordaindu behar ditugu ere, banaketa eta bezeroari arreta premiazkoak dira eta.                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <i>EZAGUTZA-BALIABIDEAK</i>    | Proiektu honi hasiera emateko ezinbestekoa da aldez aurretik produktu-diseinuari buruz ezagutza batzuk izatea. Zaborontziaren diseinua egiteko, produktu-diseinuan adituak diren pertsonak beharko ditugu, diseinu ingenieritza ezagutzak baldin badituzte, hobeto. Prototipoa egiteko, aldiz, ezagutza konkretu beharra dagoenik ez dugu uste, baina prototipatzen esperientzia onuragarria izango litzateke. Aurkezterakoan aldez aurretiko esperientzia beharrezkoa dela uste dugu, proiektuaren aurkezpena ahalik eta hoberen ateratzeko. |